

ARANA GOIREN INGURUAN

E. Knörr

- I. Nota laburra.
- II. Bi gutun argitaragabe.

I

Azken urteotan, Arana Goiri, gai bakartzat nahiz bestela, ikertu duten liburuak eta artikuluak ugaldtu egin dira. Ongi baino hobeki ikus daiteke ugalketa José Luis Granja-k prestatu lerrokadan, “Bibliografía sabiniana: Sabino de Arana Goiri y el nacionalismo vasco de J.E.L.” (1).

Arana Goirizko ikerketa horietan, hizkuntzari dagozkionak gutisko dira. Alde batera utzirik zati-lanak (2), betekizun gelditzen da oraino Mitxelena abantotarraren urtemugakari argitara artikulu batetan adierazi zuen desideratuma, hots, haren euskara eta hizkuntzalaritzari buruz behar bezalako azterketak egin litezela (3). Jakina, erantzun dakiguke, kondaira alderako liburuak eta artikuluak nagusitu badira, Arana Goiri gehien bat politikaria zelako dela. Baina *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* eta gainerako egin zituen euskal lanek, orobat Aranak sorturiko eskolak, berariazko analisiak merezi dituzte (4).

-
- (1) Jon Bilbaoren Anuario Bibliográfico Vasco 1981 *deritzan urtekarian*, Arabako Diputazioa, Gasteiz, 1982. Granja-k, horrez gain, “Bibliografía sabiniana básica” izenburuarekin, eranskin bat ezarri zion Arana Goiriren De fuera vendrá... -ren bere edizio bikainari, Haranburu, Donostia, 1982. *Ikus, liburu horretan, 35. orr. eta darr., Granjaren arrazoinezko esanak Aranaren lan guztien bigarren argitalpenaz (bidenabar: 1965ean liburuki bakarrean eman zitzaiguna, orain hirutan etorri da...).*
 - (2) Villasante eta Mitxelena *literatur kondairez gain, liburuok hogeitabost urte bait dituzte, gogoan izan Ibon Sarasolarena* (Historia social de la literatura vasca, Akal, Barcelona, 1976) eta Antonio Tovarrena (Mitología e ideología sobre la lengua vasca, Alianza, Madrid, 1980).
 - (3) Deia (Bilbo), Azaroak 25, 1978.
 - (4) Eskola ñabarra, noski. Era batetako jarraitzaileez ari zen Mitxelena, honako hau idatzi zuenean: “... sobre todo en cuestiones de lengua, tropiezo a menudo con sedicentes sabinianos que atribuyen al Maestro opiniones que yo no acabo de documentar en sus obras, cuando no encuentro en ella algo diametralmente opuesto”. Muga (Bilbo), 1 (1979), 100. orr. Laudatzaille itsuen saldoari ez bide zaio laket Altubek behin azpimarratu zuen Aranaren aitorta: “*Líbreme Dios de que jamás puedas sospechar que soy*

Kondairagileekiko dugun zorra kitatzen dugun bitartean, ilunpean dagoen Barcelonako egonaldi luzeaz (1883-1888) zerbait erants dezakegu. Angel Apraizek Aranaren notak aurkitu zituen: bi “Aprobado” eta “Notable” bat (5). Bestalde, gure argibide-urritasunean, menturaz ez dator gaizki seinalatzea, Arana Goirik Mila i Fontanals aipatzen duela, eta hain zuzen ere 1884ean argitaraturiko liburua, *Principios de literatura general* (6).

Urte haietan eta gerokoetan ere, bi euskalarik izan zuten Sabinogan eragin handiena, berak aitortu zuen bezala: “Astarloa y Eys —éste crítico implacable de aquél— fueron con el uso mis únicos maestros en varios años” (7). Eragin uzta ezin horietaz mintzatu zen behin Julio de Urquijo: “En Sabino Arana hay dos corrientes contradictorias. Una, científica, que le viene de van Eys; y otra, sentimental, que le viene de Astarloa” (8). Aranaren Astarloaganako joera ohitura bitxi batek marrazten du isla arazetan: Durangoko Astarloaren irudiaren aurretik pasatzen zenoro, Sabinok txapela erazten zuen (9).

Aranaren Azkuerekiko jarrera ikertuko denean, ezin liteke kondairak erakusten diguna kanpoan utz. Euskal irakaslerako lehiaketa guztiz ezagunaz gainera, kontutan hartu behar dugu Azkueren alderdikide-ohitasuna. Agian Aranak ez zituzkeen Azkuez zenbait esaldi gogor idatziko, lekeitiarra Sotaren ingurura joan ez balitz. “El señor Azkue, con el lamentable desacierto que le caracteriza...”, irakurtzen dugu behin (10). “Suma de los errores e inexactitudes del folleto [*Proyecto de Ortografía*] del Señor Azkue”, bestean (11); “...reconociendo y corrigiendo algunos de sus primeros trascendentales errores”, hurrengoan (12). Eta ziria hizkuntzatik at: “...yo le rogaría... publicase, sea con los auspicios de la misma corporación [Bizkaiko Diputazioa], sea con el apoyo que tan generosa y espléndidamente le prestan

capaz de pretender mermar la libertad de mis correligionarios para la investigación histórica, jurídica, lingüística y etnológica. Basta que vayamos unidos en una cosa: en procurar la independencia de nuestra patria para asentarla sobre la base de JEL. Te lo digo con toda mi alma. Basta JEL.”. Kondañori mintzo zitzaion. Ikus Altube, “Euzkal-Gaiez”. Alderdi, 44 (Azaroa, 1950), 14. orr. Lehenago “Más sobre la vida del euskera”, Euskera 17:1 (1936), 169. orr.

(5) Odon Apraizi nik entzuna.

(6) Ikus Lecciones de ortografía del euskera bizkaino, in Obras completas de Sabino Arana Goiri, Buenos Aires, 1965, 976. orr.

(7) Gorostartzu, “La vida y la obra de Sabino de Arana-Goiri”, Alderdi, 187 (Azaroa, 1962), 7. orr.

(8) Odon Apraizi solasean esana. Urkijok arbuia zuen, arrazoin osoz, bizirik zirauen Astarloa-zaletasuna. Ikus, batez ere, “Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca”, in Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbao, 1919, 416 eta 417. orr. Begira ere Cejador-ek idatzi zituen bi artikulak, “Julio Cejador?” eta Za tragedia de Julio Cejador?, Revista Internacional de Estudios Vascos, 18 (1927), 179-180. eta 513-519. orr.

(9) B. Kamiruagak Nikolas Altzolari kontatua eta beroni nik entzuna.

(10) Lecciones de ortografía del euskera bizkaino, Obras Completas, 911. orr.

(11) Ib. 942. orr.

(12) Ib. 967.

ciertos capitalistas de Bilbao” (13), edota “Una escuela antipatriótica” (14). Azkuek, dirudienez, ez zuen eduki inolako arrangurarik. Aitzitik, *Morfología vasca* liburuan batez ere, Aranaren merezimenduak aitortu zituen. Ikus, oroz gain, honako pasarte ezagun hau: “Arana Goiri (para quien en conferencia pública tuve el honor de pedir una estatua por haber proporcionado sólo él a nuestra lengua, por lo menos dentro de Euskalerrria, más lectores y escritores que todos los demás vascólogos juntos) a pesar de su talento, por no haber dispuesto de tiempo suficiente ni de los necesarios elementos para conocer extensamente la lengua...” (15).

II

Hemen eskaintzen diren bi gutunok Getxoko neure adiskide bati esker eskuratu nituen. Zori hutsaren eraginez lortuak zituen berak, beste zenbait paperekin batera.

Bi gutunak urte berekoak dira, 1898koak. Bigarrenak ez digu deus ere esaten: mezulariari begitarte egin dakion eskatzen da. Lehenak, berriz, interes handia du. Cubako gerratea zela eta, Apirilak 24, 1898, manifestaldi bat gertatu zen Bilbon. Manifestariak, Aranatarren etxe aurretik igaratean, haien eta euskal abertzaletasunaren aurka oihuz hasi ziren, bandak *La Marcha de Cádiz* jotzeari ekiten zion bitartean. Hori aski ez zelarik, harrika aritu ziren leiho eta balkoien kontra. Arana Gori anaiak etxen gelditu ziren zenbait egun, inora gabe, ekaitza baretu zain (“...estos días no salimos de casa...”) (16).

Gutunen hartzailea Lorenzo Areilza legegizona da, hots, Enrique Areilza mediku ospetsuaren anaia zaharrena. Lorenzo (1856-1938) Bilboko Abo-

(13) Ib. 953.

(14) Baserritarra, Obras Completas, 1322. orr. Azkueren “Euskal Ikastetxea”-z ari da hemen.

(15) Morfología vasca, facsimile argitalpena, *La Gran Enciclopedia Vasca*, I, Bilbo, 295-296. Azkuek anitzetan aipatzen du Arana Goiri liburu horretan. Gure kalkulak zuzenak badira, Sabino baino maizago bost autore bakarrik aipatzen dira: Añibarro, Fr. Bartolome, Joannategi, Leizarraga eta Mogel. Ikus, obra berean, laudoriozko hitz gehiago, I, 278, halaber Diccionario vasco-español-francés, Bilbo, 1905, II, 61. orr., s.v. N. Arana Goiri gazteegi hil izanaren alde txarra Altubek ere ukitu zuen: “Euskal-iztiarekiko lan eder óik [Azkue eta Lhanderen hiztegiak, gehi Azkueren Morfología vasca], lenago iñoiz agertu etziran bezelako liburu bikain eta irakasgarriók, Arana-Goiri’k, zori-txarrez, etzitian ezágutu, jaun agurgarri au, aik argitaratu ziran baiño leenago (1903 gn. urtean) il baitzan. Baldin ezagutu izan balitu ¿ez ote zitukean, beste euskal-zale aunitzek bezela, euskal-izti gaietan, aurreragoko iritzirik asko aldatuko? Nik baietz tiste”. Altube, gure 4. oharrean aipatu artikuluan, 15. orr. Politikan eta hizkuntzalaritzan Aranagandik arras urruti, Urkijok ere ez zion Sabinori bere bultzada ukatzen: “[Arana Goiri] uno de los vascos que más se han preocupado por el resurgimiento de la lengua”. “Estado actual...”, 420.

(16) *Ikus Ceferino de Jemein*, Biografía de Arana-Goiri’tar Sabin e Historia gráfica del nacionalismo, Bilbo, 1935, 268-269. orr. Javier Corcuera, Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904, Siglo XXI, Madrid, 446-447 orr.

katuen Elkargo-buru izan zen 7-8 urtez eta entrepresentzat diktamenak egiten oso entzutetsua zen (Antonio Maurak esaten zion, erdi txantxetan, diktamen bat egiten zuenoro, otoi, bidal ziezaiola kopia). Lorenzo Areilza Ignacio PNVko diputatua eta Enrique legegizonaren aita izan zen.

Arana eta Areilza familiek adiskidantza handia zuten aurreko belaunalditik, hots, Santiago Arana eta Julián Areilzarenetik. Larrazabalgo afarian Enrique Areilza gomit-egileen lerrokadan ageri da, nahiz berandu iritsi, eriren bati ikustaldia egin behar izan ziolako (17).

Lehen gutunean Aranatarren ezkon-anaia, Pedro Larrea Andraka medikua, aipatzen da berme, aurreko aldi batetan ere egiteko horietan aritua (“...la imposición de la fianza en metálico que antes fue sustituida por la de su persona?”). Orobat iloba ageri da. Oker ez bagabiltza, Paulina Arana Goiriren senarra eta alabaz mintzo da Sabino.

Hona, bada, gutunak:

“Bilbao, 29-4-98

Sr. D. Lorenzo de Areilza

Presente

Muy Sr. mío:

En previsión de lo que pudiera ocurrir, queremos mi hermano y yo ver si hay medio de poner nuestros bienes á salvo. Y al efecto rogamos á V. que hoy mismo y lo más pronto posible, si pudiere ser, se sirva darnos contestación á la siguiente consulta. Se la enviamos escrita, porque estos días no salimos de casa, a fin de que no se sepa dónde estamos.

* * *

Si nosotros firmamos varios recibos pagarés, y en ellos, poniéndoles distintas fechas ya pasadas, declaramos haber recibido, sea de la hermana, sea de la sobrina, ciertas cantidades en préstamo, con la obligación de satisfacer anualmente un determinado interés y de devolver a tal fecha las cantidades prestadas, y garantizando el pago con la propiedad que poseemos,

1.º ¿Podremos inmediatamente elevar á escritura pública esos contratos privados?

2.º ¿Una escritura de esta clase está sujeta á derechos reales?

3.º ¿Queda, haciéndola, á salvo de confiscación la propiedad?

* * *

Si un día se declara á la *provincia de Vizcaya* en estado de sitio, y la autoridad militar ordena nuestra prisión, mas no nos halla,

(17) Argibide guztiok José Maria Areilza jaunari zor dizkiot. Eskuharki, Enrique Areilza Larrazabalera ezin-joanen lerrokadan agertzen da. Ikus, Arana Goiri, Obras Completas, 160. Javier Corcuera, aipatu liburua, 206. orr. Enrique Areilza, nolana ere, ez zen harez gero sabindarren artean gertatu. Begira haren Epistolario, [Ellacuria], Bilbo, 1964, oroz gain 64. orr.

¿Podrá llevar á cabo la confiscación de nuestros bienes?
En el mismo caso,
¿Nos habrá de llamar la autoridad militar, antes de confiscárnoslos,
para que nos constituyamos en prisión?
En caso afirmativo,
¿Qué plazo nos podrá dar para presentarnos?

* * *

Nuestro fiador personal en la causa que se nos sigue como socios del *Euskeldun* es nuestro cuñado.

Si nosotros, obligados a retirarnos de los dominios de España, así lo hiciéramos,

¿Se podría librar de la justicia nuestro cuñado, mediante la imposición de la fianza en metálico que antes fue sustituida por la de su persona?

En caso negativo,

¿Qué responsabilidad pudiera caberle?

* * *

Agradeciendo á V. cordialísimamente la consulta, se repite suyo att.º seguro servir Q.S.M.B.

Sabino de Arana y Goiri”

“Bilbao 30-XI-98

Sr. D. Lorenzo de Areilza

Bilbao

Muy Sr. mío de mi mayor afecto:

Recomiendo á V. muy encarecidamente al portador de la presente en el asunto que lleva. El, mejor que yo, se lo explicará á V. Sólo le ruego le atienda como [(18)] si fuera su poco cumplidor servidor de V.

Q.B.S.M.

Sabino de Arana y Goiri”

(18) co irakur ezin daitezkeen bizpahiru letraren gainean.